



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Bilbao Orkestra Sinfonikoak 1922ko martxoaren 8an eskaini zuen bere lehenengo kontzertua. Arriaga antzokian izan zen, Armand Marsick zuzendariaren batutapean. Bizkaiko gizartearen babesari esker sortu zen BOS, eta oraindik ere harreman estua du lurralde horrekin, bertan garatzen baitu bere jarduera gehiena.

Orkestra sortu zenetik honako zuzendari hauek izan ditu: Armand Marsick, Vladimir Golschmann, Jesús Arámbarri, José Limantour, Antoine de Babier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden, Theo Alcántara Juanjo Mena, Günter Neuhold eta Erik Nielsen.

BOSEk, bere historia luzean zehar, jarduera zabala garatu du Bilbon eta Bizkaian, baita etxetik kanpo ere. 2003ko uztaietan, Juanjo Menaren batutapean, Valery Gergiev zuzendariaren gonbita jaso zuen San Petersburgoko Mariinski antzokian jotzeko, hiriaren 300. urteurrenean antolatutako ospakizunen baitan. Kontzertu hori zinez garrantzitsua izan zen orkestraren nazioarteko proiektiorako, eta ordutik maiz gonbidatzen dute Nanteseko *La folle journée* jaialdira eta Marseillako *La Roque D'Antheron* jaialdira. Horrez gain, bi aldiz jaso du Japonian jotzeko gonbita: 2007an, hamar kontzertu eskaini zituen Tokion, 40.000 inguru ikuslerentzat; 2009an, aldiz, orkestrak bira bat egin zuen Osaka, Fukui, Tokio, Fukuoka, Yokohama eta Gifu hirietatik. 2019ko urtarrilean *Madama Butterfly* operaren bi emanalditan parte hartu zuen, Omango hiriburua den Mascat hiriko Royal Opera House antzokian.

2022an, orkestraren mendeurrenaren harira, Hiribilduko Udalak «Bilboko enbaxadore» izendatu du eta Sabino Arana Saria eman diote. Orkestraren 90. urteurrenean, Schönbergen *Gurrelieder* lanen zuzeneko kontzertuak grabatu eta editatu zituen Thorofon etxeak, gure orkestrak Günter Neuholden zuzendaritzapean eskainitakoak.

Nazioartean emanaldiak eskaintzeaz gain, BOSen historian nabarmentzekoak dira Espainiako hiri batetik bestera egindako birak, hamarkada askoan iparraldeko *de facto* orkestra bilakatu dutenak. Gainera, BOSEk sarritan jo du Madrilgo Auditorio Nacionalean, Donostiako Musika Hamabostaldian, Santanderko Nazioarteko Jaialdian, Parisko Jaialdian edo Ibermúsicaren “Munduko Orkestrak” zikloan. 1998ko martxoan, Carmelo Bernaola, Cristobal Halffter eta Luis de Pablo konpositoreak Madrilgo Complutense Unibertsitateko Honoris Causa doktore gisa izendatzeko inbestidura-kontzertura gonbidatu zuten. 1998an Euskadi ordezkatu zuen Lisboako Erakusketa Unibertsalean, eta 1999an Euskalduna Jauregiaren inaugurazioan parte hartu zuen, gaur egun orkestraren egoitza dena.

BOSen buru izan diren zuzendarien zerrendan izen historikoak daude, hala nola Enrique Fernández Arbós, Bartolomé Pérez Casas, Ataulfo Argenta, Eduardo Toldrá, Sir Malcolm Sargent, Igor Markevitch, Charles Dutoit, Ros Marbá, García Asensio, Jerzy Semkow eta Josep Pons. Horrez gain, honako hauen eskutan jarri izan da:



Maurice Ravel, Jesús Guridi, Pablo Sorozábal, Jesús Arambarri, Krzysztof Penderecki, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Ernesto eta Cristóbal Halffter eta beren obra propioak interpretatu dituzten beste konpositore asko.

BOSEk, bere historia luzean zehar, bakarlari handiekin partekatu du agertokia: José Iturbi, Arturo Rubinstein, Jacques Thibaud, Vladimir Horowitz, Fritz Kreisler, Joseph Szigeti, Henryk Szeryng, Vlado Perlemuter, Mstislav Rostropovich, Salvatore Accardo, Joaquín Achúcarro, Felix Ayo, Nicanor Zabaleta, Maurice André, Mischa Maisky, Narciso Yepes, Alicia de Larrocha, Boris Belkin, Ivo Pogorelich, Jean Pierre Rampal, Asier Polo, Truls Mork, Sabine Meyer eta Frank Peter Zimmermann, besteak beste. Ahotsen zerrenda ere luzea da: Victoria de los Angeles, Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Plácido Domingo, Luciano Pavarotti, Ainhoa Arteta, Waltraud Meier, Bilboko Koral Elkartea, Donostiako Orfeioa eta EHUko abesbatza.

Katalogo diskografikoaren baitan, BOSEk Juanjo Menaren zuzendaritzapean, euskal musikaren bilduma interesgarri bat osatu du Naxos etxearentzat (Arambarri, Guridi, Arriaga, Isasi, Usandizaga, Sarasate eta Escudero). Era berean, Rodrigo eta Takemitsu konpositoreen obrak grabatu ditu EMI JAPAN etxearentzat Kiyoshi Shomura gitarra-jole japoniarrarekin. 1985an, Arriagaren obrak grabatu zituen Jesús López Cobosekin. Thorofon etxeak, halaber, Schönbergen *Gurrelieder* obrak argitaratu ditu, orkestraren 90. urteurrena ospatzeko eskainitako kontzertuetan zuzenean grabatu zirenak, Günter Neuholden zuzendaritzapean.

Euskalduna Jauregian abonamendu- eta ganbera-denboraldia eskaintzeaz gain, orkestra Bizkaiko herrietan ere zabaldu da, ABAOren operetan jotzen du eta irteera eta bira ugari egiten ditu. Hori gutxi balitz, orkestrak lan pedagogiko handia egiten du; izan ere, kontzertu didaktikoak eskaintzen ditu 1985etik, eta aitzindaritzat har daitekeen ekimen bat antolatzen du: kontzertuak familian, baita musikaren bidezko gizarteratze-jarduerak egin ere. Gainera, lankidetzan aritzen da beste kultura-erakunde batzuekin, hala nola Arriaga Antzokiarekin, Guggenheim Bilbao Museoarekin eta Bilboko Arte Ederren Museoarekin. Baita euskal taldeekin zuzeneko kontzertuetan eta diskoen grabazioan kolaboratu ere.

BOSen jarduera zale ugarien laguntzari eta patronatuko kideen ekarpenei esker garatzen da: Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatea.